LAUDIO ikastola .eus 85. alea
2015/06/07
2015/16 ikasturtea

# EKAINAREN 10EAN LOMCERI PLANTO!

Ekainaren 10ean, eskualdeko beste 11 ikastetxerekin batera Ikastolak LOMCEk eta Heziberrik ezarritako 3. mailako azterketari adierazitako plantoa irudikatuko dugu.

Sarrera orduan, 9:00etatik 09:30era, gelatara sartu beharrean Ikastolako kanpoaldean elkartuko gara hezkuntza komunitatearen argazki erraldoia egiteko ikasle, guraso eta langileak elkartuta.

Haur Hezkuntzako ikasleak beheko Ikastolan sartuko dira normal 9:00etan, eta jarraian tutoreekin argazkia egitera igoko dira goiko Ikastolara. Parte hartuko duten gurasoak umea utzi eta gora joango dira.

Lehen Hezkuntzako ikasleak ere gelatara sartu eta jarraian esplanadara aterako dira taldeka. Bigarren Hezkuntzako ikasleak eta




gurasoak 9:00etan esplanadan elkartuko dira.

**Arratsaldean agerraldia plazan**

Arratsaldean berriz, Aiaraldean plantora batu diren 12 ikastetxeen agerraldia egingo da Laudioko plazan arratsaldeko 18:00etan.

Elkarretaratzean kale animazioa izango da eta bildutako guztien artean norberak eramandako askaria denok batera plazan partekatuko dugu. Anima zaitez eta zatoz!

# ARABA EUSKARAZ JAIRAKO LAGUNTZAILEAK

Ekainaren 19an Aguraínen ospatuko den Araba Euskaraz jaian lagunduko duen taldea osatzen ari gara. 8 lagun daude txosna txandararako eta beste 13 pertsona behar dira.

Segurtasun taldean berriz, pertsona bat dago eta beste 6 behar dira.

Izen ematea zabalik dago idazkaritzan, 94 672 67 37 telefonoan eta eke@laudioikastola.eus posta elektronikoaren bidez.

# GURASOENTZAKO HITZALDIA

Laudio Ikastolak gurasoei zuzendutako prestakuntza saio irekia antolatu du ekainaren 15ean, asteazkena, 17:30ean, Laudioko Kultura Etxeko Arraño gelan. “Ziber-harremanak: helduentzako erronka ala gazteentzako aukera?” izenburua izango duen hitzaldian Iratxe Esnaola informatikari eta unibertsitateko irakasleak, teknologia digitalek gazteen arteko harremanetan duten zirrara eta arriskuetara helduen ikusmiratik hurbiltzeko gakoak eskainiko ditu, eremu horretan gazteek beraiek dituzten bizipenak helduok ditugunekin alderatuz.

Teknologia berriek gero eta garrantzia gehiago dute ikasleen egunerokoan eta ezinbesteko lan tresna bilakatu dira ikasgelako jardunean. Beraien erabilpena baina ez da soilik eremu akademikora mugatzen eta gazteek gero eta gehiago erabiltzen dituzte beraien arteko harremanetan.




Uda garaia harreman sarea ugaltzeko garaia izanik, momentu aproposa da hausnarketa partekatzeko. Galderak anitzak dira: smartphonearekiko menpekotasuna soilik gazteen kontua al da? gaitasun sozialen garapenerako tresna bihurtu al da smartphonea? Zer da Whatsapp gazteentzat? eta helduontzat? nola eta zertarako erabiltzen duten/dugun, nola baztertzen eta mintzen dituzten kideak teknologia hauen bitartez, nola enpatia den harreman ororen giltza eta teknologiekin enpatizazio prozesua nola zailtzen den, eta abar.

LAUDIO ikastola .eus 85. alea
2015/06/07
2015/16 ikasturtea

# EL 10 DE JUNIO PLANTO CONTRA LA LOMCE

*El 10 de junio, junto a otros 11 centros de la comarca, vamos a escenificar el planto que la Ikastola ha mostrado a los exámenes de 3º impuestos por la LOMCE y Heziberri.*




*A la hora de entrada, de 9:00 a 9:30, en vez de entrar a las aulas realizaremos una foto gigante de toda la comunidad educativa, alumnado, padres y madres y trabajadoras y trabajadores, en la explanada de la Ikastola.*

*El alumnado de Educación Infantil entrará a las 9:00 a las aulas y a continuación subirá en grupos con las tutoras a la Ikastola. Los padres y madres subirán por su cuenta.*

*El alumnado de Primaria accederá también a las aulas para a continuación salir a la explanada. Educación Secundaria se concentrará a las 9:00 en la explanada junto a las madres y padres.*

### Acto de la tarde en la plaza

*Por la tarde tendrá lugar una concentración de los 12 centros de Aiaraldea que han participado en el planto en la plaza de Laudio a las 18:00.*

*En el acto habrá animación callejera y para finalizar se realizará una merienda colectiva de fin de curso entre todas las personas asistententes.*

# COLABORACIÓN EN LA FIESTA DEL ARABA EUSKARAZ

*Estamos formando el grupo de personas que colaborará en la fiesta del Araba Euskaraz del próximo 19 de Junio en Agurain.*

*En este momento hay 8 personas apuntadas al turno de txosna y se necesitan 13 mas.*

*En el grupo de seguridad hay una persona apuntada y se necesitan otras 6.*

*La inscripción puede realizarse en la secretaría de la Ikastola, en el teléfono 94672 6737 o en el correo electrónico eke@laudioikastola.eus.*

# CHARLA PARA PADRES Y MADRES

*Laudio Ikastola ha organizado una sesión formativa abierta para madres y padres el 15 de junio, miércoles, a las 17:30 en la sala Arraño de la Casa de Cultura de Laudio bajo el título "Ciber-relaciones: ¿Un reto para adultos o una oportunidad para jóvenes?". En la charla Iratxe Esnaola, informática y profesora universitaria, ofrecerá claves para aproximarnos desde la visión de las personas adultas a las emociones y riesgos que las tecnologías digitales generan entre los más jóvenes comparándolas con las que vive una persona adulta.*

*Las nuevas tecnologías cada vez tienen mayor importancia dentro de las aulas y se han transformado en un elemento imprescindible. Su utilización sin embargo no se limita al ámbito académico y las y los jóvenes cada vez las utilizan más en sus relaciones.*




*El verano es una época propicia para establecer nuevas relaciones, y por lo tanto un buen momento para reflexionar sobre el tema. Las preguntas son variadas: ¿La dependencia del smartphone es sólo cosa de jóvenes?, ¿se han convertido los smartphones en un instrumento para desarrollar habilidades sociales?, ¿qué es el Whatsapp para los jóvenes? y ¿para las personas adultas?, ¿cómo y para qué los utilizan o los utilizamos?, ¿cómo se margina o hiere por medio de estas tecnologías? o ¿en qué medida obstaculizan el desarrollo de la empatía?*